

## LUMA BERRIEN AZTARNAK

Ilustrazioa:  
**Kristina Fernandez**

### **Eba Zilbeti Lazkano (Hernani 1968)**

Ikasketez fisikari, ogibidez irakasle, etengabe ikasletzat du bere burua. Aspaldikoa du irakurzaletasuna, orain idazten ikasten hasi dela dio, inoiz ez baita berandu mundu berriak esploratzeko.



*Eba Zibefi,*

## *Biharamunak*

**N**on nago? Nire logela da. Izugarritzko buruko mina daukat, eta botagura. Jaiki egin beharko dut. Ai ama, zein da ohean nire ondoan dagoen hau? Zertan ibili naiz? Ez naiz ezerekin akordatzen. Atzo bazkaria izan genuen sagardotegian, eta gero Hernanin ibili ginen po-teatzen. Eta handik Yausikara? Uste dut baietz, baina zeinekin joan nintzen? Kuadrillako gehienak afalordurako erretiratu ziren. Horraino bai, oroitzen naiz. Gero auzoko batzuekin egin nuen topo, edo lankide ohi harekin, agian? Zenbat des-torni hartu nituen? Eta marrak? Zertarako hartu ote nituen marrak? Badakit ospakizun inportantea zela, baina aje hau gehiegizkoa da. Zer ordu da? Arratsaldeko seiak? Baina zer ordutan etorri gara, bada? Eta aldameneko honekin larrutan aritu naiz? Gozatu gabeko beste larrualdi bat, ez nago bada aukerak galtzeko. Egia esan, jateko modukoa dago, baina zein ote da? Ez dut esnatuko, edo bai? Gorputzagatik oso gaztea ematen du...

Ez eman buelta gehiago, egina dago, eta kito. Ez duzu erre-mediatorik. Badirudi formaltzen ari zarela, eta aukera txikiena suertatzen denean berriz ere jausten zara. Ez duzu inoiz ika-siko, edo, agian, ez duzu ikasi nahi. Non geratu dira urte be-riarekin batera zure buruarekin adostu zenituen guztiak? Zerrenda egin zenuen: drogarik ez; alkohola asteburueta soilik, neurtuta, eta beti konpainian; sexua edan ez duzunean soilik, aurretik ezagutu duzun norbaitekin, eta inoiz ez lehe-ngo zitan.

Gaur, itxuran, arau guztiak apurto ditut...

\*\*\*\*\*

Ohetik jaiki zara, erdi zorabiaturik. Biluzik zaude eta ko-munean sartu zara, ahalik eta zarata txikiena eginez. Txiza egiten hasi aurretik ispilura begiratu duzu. Izugarritzko aur-pegia txarra daukazu, zahar ikusi duzu zure burua, eta burua-rekin ezetz esanda buelta hartu duzu. Dutzatu egin zara, txa-busina jantzi eta sukaldera joan zara kafe bat hartzera, onik ez baino kalte egingo dizula jakin arren.

Aulki batean eseri zara, pentsakor, damututa bezala, damua lagun txarra dela jakin arren. Ongi baitakizu horrela lortzen duzun gauza bakarra gaizki sentiaraztea dela, egindakoa ezin baita atzera bota, baina ezin duzu ekidin.

Sukaldean zaudela zure ohekidea agertu da. Jantzita. Oso polita da, eta oso gaztea. Bere aurpegia ezaguna egin zaizu, baina ez zara gai esateko zergatik. Lotsatuta dagoela dirudi. «Egun on» esan dizu herabeki. Kafea eskaini diozu eta ezez-koa egin dizu buruarekin, joan beharra daukala esanez. Muxu bat masailean eman dizu eta alde egin du.

Adin kontu horrek eta zure bizimoduak buruhaustea sor-

tzen dizkizute, ez dizute lasai lo egiten uzten. Bizipen ugariren ondoren, oraindik ere, alhadura sentitzen duzu izandako hainbat harreman direla eta. Jendarteak ezarrirako konben-tzionalismoen aurka gogor borrokatu duzun arren, jasotako heziketa kristaua gainetik kendu ezineko lauza baten modu-koa zaizu, astuna, itogarria.

Kaleko atea itxi denean egongelara joan zara. Telebista piztu eta sofan etzan zara. Ez duzu pentsatu nahi, bizirik zau-denik ere ez duzu sentitu nahi. Eguna amaitzea nahi duzu, beste egun bat has dadila, desager dadin sentitzen duzun mina, fisikoa zein animikoa.

Goizeko laurak aldera esnatu zara sofan, telebista piztuta dagoela. Jaiki eta logelara joan zara. Orduan akordatu zara mugikorrari ez diozula egun guztian begiratu. Bezperan era-bilitako jantzien artean aurkitu duzu, bateriarik gabe. Karga-tzen jarri duzu, eta kargatzen hasi ahala uatsapak sartzen hasi dira. Atzo zure urtebetetzea izan zen. Berrogeita hamar bat mezu kontatu dituzu, bezperan betetako urte adina, mende erdira iritsi baitzara, ispilua kontrakoa adierazten dizula sinetsi arren.

Mende erdi gainean, eta oraindik munduan zure lekua bi-latzen zabilta. Ez duzu inoiz egin zugandik espero zena, ezta zuk espero zenuena ere. Gauza batzuk lortu dituzu bizitzan, inportanteak; independentzia eta bakarrik moldatzeko gai-tasuna, esaterako. Bakarrik bizi zara, zure gustura apaindu-tako apartamentuan, baina ez duzu aurkitu bidelagunik bi-zitza partekatzeke, edo, agian, ez duzu nahi izan, baina ez duzu hori inoiz aitortuko; inoiz ez. Ez duzu seme-alabarik, ez duzu bikotekide finkorik, etengabeko parranda batean be-zala bizi izan zara, unean uneaz gozatzen, horrek aspaldian inolako zoriontasunik ematen ez dizun arren. Esan daiteke zure bizitza gehiegikeriaz osatuta egon dela, eta azken bola-dan lasaiago zabilta arren, tarteka kontrola galtzen duzu, larunbatean bezala.

Ohean sartu zara, oraindik deseginda dagoen horretan. Ta-bako usaina hartu diezu maindireei, aspaldi erretzeari utzi zenion arren. Begiak itxi eta berriz ere lokartu egin zara, harik eta goizeko 06:45ean iratzargailuak jo duen arte.

Jaiki, dutxa bat hartu, kafea prestatu eta gosaltzera eseri zara. Tarte erabili duzu zorion mezu guztiak erantzuteko, «milesker» eta muxu-bihotz bana bidaltzea izan da erabili duzun formula. Jantzi eta etxetik irten zara, lanera bidean. Eskailerak oinez jaisten hasi zara egunero bezala. Hirugarren solairuan zoazela bizilagun bat topatu duzu. Zur eta lur geratu zara aurpegia ikusi diozunean. Jakina ezaguna zenuela bez-perako ohekidea. «Egun on» esan eta eskaileretan behera ja-rraitu duzu, inoiz ikusi izan ez bazenu bezala.